

## OLERKARIA

(Rilke)

Nigandik urruntzen aiz, ordua.  
Ire egoen farraztadak zauritzen nautela.  
Bakarrik, zer egin nere ezpaineekin?  
Zer nere gaua ta egunakin?

Ez diat maitalerik ez etxerik  
ezta iñun bizi-tokirik.  
Ari naizen era guziak  
nere lepotik aberasturik.

## IÑORK ESAN AL LIDAKE...?

Iñork esan al lidake  
nere bizia nora doan?  
Ekaitzean putz bat ote naiz?  
Urmaelean olatua?  
Ez ote naiz gero, zoriz,  
udaberriak ikaratutako  
urki zuri margula?

## BIDEAK

Iñora eramaten ez duten bideak,  
bi zelairen tartetik,  
esan ditezke okertuak  
beren izatez indarturik :

sarri alkarren artean  
une uts-utsa  
eta denbora  
besterik ez duten bideak.

*OTSALAR'ek itzulita*